

AMAMA¹ JUANARI



Negu gordin ta edurtsuaren arrats batean,
Apaldu eta su galantaren inguruan;
Bere alaba izan zanaren alabachoak,
Amamak daukaz bi alboetan, bat altzoan.

Aren ulleak dira kanpoko edurra legez,
Eta buruan daukan zapia duiñ zuriak;
Urte askodun bere arpegi itzalezkoak,
Daukaz oraindik matrallak oso gorri biak.

Bere begiak samurrak dira llobakganako,
Bere alaba zana duiñ maite dauz irurak;
Euren onaren daroaz gabak asko lanean,
Eta ez lotan goiñik gabera astegunak.

Bere eskuak badagoz bere giarratuak,
Zintzo derautse beranduraño goruetan;
Lloba laztanak euki dakien oe zuria,
Eta atorrak onak zer jantzi domeketan.

Alboko lloba batek dirautsa erregutuaz:
—Kontau eiguzu ipuiñ polit bat gaur amama,
Igaz neutsuna alako pozik entzun nik zuri
Izentzat Peru eta Maria dituana.

Beste alboan daukanak laster erantzuten dau
—Orren aldean amamak daki egokia,

(1) Amama=amona.

Kontau eiguzu kontau amama, neuk nai dodana,
Dei tzen j akona *Amalau-errementaria*.

—Ez, ez, amama, beste bat dozu obeagoa,
Chomingorri da danen artean ederrena;
—Altzoan daukan gaztechoenak esaten deutsa—
Ase da kontau dagizun gura nik neukena.

—Isi guztiok banoatzue bat esatera,
Sagar zintzo ta ustelduena entzuizue;
Lagun gaiztoai alde egiten ikasiteko,
Au entzutea orain ondoen jatortzue.

Baña suaren bero gozotan ipuiña esan,
Baño lenago llobak ebazan loak artu;
Aotik bera adurra pozez jausten jakola,
Eurai begira amama mutu zan geratu.

Orduan danak bat banan laster erantzi eta,
Oe zuri ta apatz garbian dauz etzaten;
Irurai laztan gozochoko bana emondakoan,
Aitagurea ta Abemaria erasaten.

Amama samur lloben kutuna, mundu onetan,
Zagoz bigarren ama aldia iragoten;
Alabearen lekuan bere iru alabak,
Orain deutsue biotz danori eroaten.

Ezin obeto, deitzen deutsue ao betean,
Ama zanari eutsen naiagaz gaur: «amama»
¡Ai! balekie zeinbateraño dituzun maite,
Len alaba bat, eta gaur dozuz iru Juana.

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

Ochandion, 1898-ko Zezeillean.

